

Año 2022. urtea

N.º 34. zk.



TRABAJOS DE ARQUEOLOGÍA NAVARRA

SEPARATA

Zalduako aztarnategia (Auritz/Burguete): 2022. urteko kanpainako emaitzen laburpena

Oihane Mendizabal Sandonís, Leire Arana Ojanguren,
Eder Martinez de Miguel, Juan Mari Martinez Txoperena, Rafa Zubiria
Mujika, Ekhine Gartzia Gartzia, Juantxo Agirre Mauleon

Sumario / Aurkibidea

Trabajos de Arqueología Navarra

Año 2022. urtea - N.º 34. zk.

ARTÍCULOS / ARTIKULUAK

Metalurgia de la Edad del Bronce en las Bardenas Reales (Navarra). Análisis de materiales y primera aproximación experimental Alberto Obón Zúñiga, Héctor Conget Vicente, Andrés García-Arilla Oliver	13
Actuación arqueológica en el Cerro del Romero <i>Kaiskata/Cascantum</i> (Cascante, Navarra) Marta Gómara Miramón, Ángel Santos Horneros, Óscar Bonilla Santander, Miriam Pérez Aranda	47

NOTICIAS / BERRIAK

Intervención arqueológica en el yacimiento de Resa (Andosilla) Josu Narbarte, Mattin Aiestaran, Aitor Pescador, Eneko Iriarte, Oihane Mendizabal Sardonís, Euken Alonso, Carlos García, Juantxo Agirre Mauleon	69
Prospección de cuevas en el valle del Araxes (Araitz-Betelu, Navarra). Campaña de 2022 Jesus Tapia Sagarna	77
Arqueología en el yacimiento de Irulegi (Valle de Aranguren) 2022 Mattin Aiestaran, Daniel Ruiz-Gonzalez, Eneko Iriarte, Jesús Sesma, Jesús García, Jose Antonio Mujika-Alustiza, Juantxo Agirre-Mauleon	91
Artziko aztarnategia (Artzibar/valle de Arce): 2022. urteko kanpainako emaitzen laburpena Oihane Mendizabal Sardonís, Eder Martinez de Miguel, Juan Mari Martinez Txoperena, Rafa Zubiria Mujika, Javier Uriz Monaut, Ekhine Gartzia Gartzia, Juantxo Agirre Mauleon	99
Cerco de Artajona. Actuaciones en el frente norte en 2022 Nicolás Zuazúa Wegener, Carlos Zuza Astiz	107
II campaña arqueológica. Ermita de San Cristóbal (concejo de Artica 2022) Iñaki Sagredo Garde, Jon Sagredo Alonso, Julen Azkona	115

Sumario / Aurkibidea

Zalduako aztarnategia (Auritz/Burguete): 2022. urteko kanpainako emaitzen laburpena Oihane Mendizabal Sandonís, Leire Arana Ojanguren, Eder Martinez de Miguel, Juan Mari Martinez Txoperena, Rafa Zubiria Mujika, Ekhine Gartzia Gartzia, Juantxo Agirre Mauleon	123
Pueblo Viejo de Caparroso, campaña de 2022 Carlos Zuza Astiz, Nicolás Zuazúa Wegener	131
Trabajos arqueológicos en <i>villa</i> romana de Picordero I (Cascante, Navarra). En las campañas de 2021 y 2022 Marta Gómara Miramón, Óscar Bonilla Santander, Ángel Santos Horneros, Miriam Pérez Aranda, Alicia María Izquierdo	139
IV campaña de excavación en el yacimiento romano de «El Plantío» de Corella (Navarra). 2022 Juan José Bienes Calvo, Óscar Sola Torres	149
El foro de la ciudad romana de Santa Criz de Eslava: sondeos de 2022 Paloma Lorente Sebastián, Luis Romero Novella, Luka García de la Barrera	157
2022. Real fundición de municiones de Eugi: la energía del agua Francisco Labé Valenzuela, Ana Carmen Sánchez Delgado	165
I Campaña arqueológica. Castillo de Funes Iñaki Sagredo Garde, Julen Azcona, Jon Sagredo Alonso	171
IV Campaña en Larraga. Consolidación y puesta en valor del yacimiento Iñaki Sagredo Garde, Jon Sagredo Garde, Julen Azkona	179
Prospección arqueológica de las cuevas del valle de Larraun (Navarra), campaña 2022 Jesus Tapia Sagarna	191
Torre de San Gregorio (Lumbier). 2022. II campaña de excavaciones Francisco Labé Valenzuela	201
Metodología de la documentación y reconstrucción 3D del patrimonio arqueológico: el caso de El Castillar (Mendavia) Leyre Arróniz Pamplona, Daniel Pérez Legido, Xavier Bayer Rodríguez, Clara Calvo Hernández, Héctor J. Fonseca de la Torre	209
Consolidación del aljibe de Garaño y otras estructuras. Campaña 2022 Iñaki Sagredo Garde, Jon Sagredo Alonso, Julen Azkona	217
Ermita de la Virgen del Pero (Peralta / Azkoien). Campaña arqueológica del 2022 Nerea Soto Úriz, Rosario Mateo Pérez	229
Intervención arqueológica en la necrópolis islámica de Ribaforada (Navarra), campaña 2022. (Excavación en calle Príncipe de Viana, 18-20) Óscar Sola Torres, Nerea Soto Úriz	237

Sumario / Aurkibidea

Castillo de Santacara, campañas de 2022 Nicolás Zuazúa Wegener, Carlos Zuza Astiz, Imanol Martínez Santamaría	243
Investigación y puesta en valor del castillo de Guerga. Unzué/Untzue. Año 2022 Iñaki Sagredo Garde, Jon Sagredo Alonso, Julen Azkona	253
Excavación arqueológica en el castillo de Valtierra. Campaña 2022 Juan José Bienes Calvo, Óscar Sola Torres, Jesús Lorenzo Jiménez	267
Investigación arqueológica del yacimiento La Custodia (Viana). Campaña de 2022 Javier Armendáriz Martija	275
Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak / Rules for the submission of originals	287

Zalduako aztarnategia (Auritz/Burguete): 2022. urteko kanpainako emaitzen laburpena

Yacimiento de Zaldua (Auritz/Burguete): resumen de los resultados de las campañas de 2022

Site of Zaldua (Auritz/Burguete): summary of the results of the 2022 campaigns

Oihane Mendizabal Sardonís
Aranzadi Zientzia Elkartea. UPV/EHU
omendizabal@aranzadi.eus
<https://orcid.org/0000-0001-6337-6345>

Leire Arana Ojanguren
Aranzadi Zientzia Elkartea

Eder Martinez de Miguel
Aranzadi Zientzia Elkartea

Juan Mari Martinez Txoperena
Aranzadi Zientzia Elkartea

Rafa Zubiria Mujika
Aranzadi Zientzia Elkartea

Ekhine Gartzia Gartzia
Aranzadi Zientzia Elkartea. SOT Prospecció Arqueològica

Juantxo Agirre Mauleon
Aranzadi Zientzia Elkartea

DOI: <https://doi.org/10.35462/tan34.9>

LABURPENA

Honako argitalpen honetan 2022. urtean Aranzadi Zientzia Elkarteko lantaldeak burututako kanpaina arkeologikoen berri ematen da. Indusketak bi eremutan egin dira, batetik, herrigunearen erdian kokatutako termen eraikinaren barnean eta bestetik, hego mendebaldeko zonaldeko bi eraikinetan. Lehenengoaren kasuan aurretiazko eremu zabalean irekitako kanpaina baten jarraipena izan da, bigarrenenean, ordea, eraikin bakoitzeko gela batean zundaketa arkeologiko bana egitea.

Gako hitzak: erromatar herrigunea; Pirinioak; termagunea.

RESUMEN

En la próxima publicación se relatan las campañas arqueológicas realizadas en 2022, llevadas a cabo por el equipo de trabajo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi. Las excavaciones se han realizado en dos zonas, por un lado, en el interior del edificio de las termas, situado en el centro del núcleo urbano; y por el otro, en dos edificios de la zona suroccidental del asentamiento. En el caso de la primera ha sido la continuación de una campaña previa realizada en extensión, mientras que en la segunda ha consistido en ejecutar un sondeo arqueológico en una estancia de cada edificio.

Palabras clave: asentamiento romano; Pirineo; complejo termal.

ABSTRACT

The next publication reports on the archaeological campaigns carried out in 2022 by the work team of the Aranzadi Science Society. The excavations have been done in two areas, the first one inside the baths building, located in the centre of the settlement; and the others, in two buildings located in the southwestern area of the settlement. In the case of the thermal complex, it was a continuation of a previous campaign digged in open area, while the other two consisted of carrying out an archaeological trench in a room of each building.

Keywords: roman settlement; Pyrenees; thermal complex.

1. SARRERA. 2. ZALDUAKO 2022KO KANPAINA. 2.1. Termen eraikineko eskuhartzea. 2.2. Aztarnategiaren hego mendebaldeko zundaketak. 3. ONDORIOAK. 4. BIBLIOGRAFIA.

1. SARRERA

Zalduako aztarnategi arkeologikoaren kokapena estrategikoki hautatua izan zen, Ibañetako mendi-pasabidetik hegoalderantz, 5 km eskasera dagoen Errozabaleko lautadan finkatu baitzen (1. irudia). Lepo hori da Ortzainzurietako mendilerroaren barnean ipar-hego isurialdeak zeharkatzeko gune baxuena da 1057 metroko altueran, hain zuzen. Hori dela eta, Historiaurretik hasi eta Aro Garaikideraino jende andanak gurutzatu du alderik alde, Pirinio mendebaldeko pasabide garrantzitsuenetariko bihurtuta. Antzinatean ere joera hori ez zen salbuespen bat izan eta horren erakusgarri ditugu, erromatarren garaian inguru honetan topatutako hainbat kokaleku eta aztarna. Hortaz, testuinguru horretan kokatu beharko litzateke Zalduako kokalekua, mendi pasabidea babestu zein lurraldeko gainontzeko baliabidean ustiatu eta galtzadarekin lotuko dituen herrigunea.

Zalduako aztarnategi arkeologikoaren aurkikuntza Juan Mari Martinez Txoperena iker-tzaileari esker burutu zen, 1980ko eta 1990eko



1. Irudia. Inguruaren gaur egungo dron irudia, goialdean Ortzainzurietako mendilerroa eta behealdean Errozabaleko lautadan Zalduako lursaila. Egilea: J. Etxegoien.

hamarkadetan zehar Aurizberri/Espinaleko (Erroibar/Valle de Erro) zelai batzuetan kronologia erromatarreko materiala lurrazalean topatu zuela jakinarazi zuenean. Aurrikuntza horien ondorioz, esku-hartze arkeologikoak egin ziren, Ateabalsa eta Otegiko errausketanekropoliak zein herrixka gisa interpretatutako gune bat indusiz, biak ala biak Aurizberri/Espinal kontzejuko lurretan eta Zalduako herrigunetik kilometro eta erdira. Bi eremuen artean 68 errausketa aztarna inguru erregistratu ziren (Unzu & Peréx, 1997-1998, 133. or., 2010, 112. or.). Hari buruzko argitalpenak diotenaren arabera I. mendean bigarren erdialdean eta II mendean erabiliak izango ziren (Unzu & Peréx, 2010, 98. or.).

Indusketa horiek eskualde horretako erromanizazioaren pertzepzioan aldaketak eragiten hasi ziren, lehen aldiz frogatu baitzen erritu eta ohitura erromatarrak zituen komunitate eta jarduera egonkor bat zegoela lurralde menditsu honetan. Era berean, lehen ebidentziak ziren agerian uzten zutenak ohitura horiek ez zetozeela bat soilik goarnizio militarren kokalekuekin, errausketetan sexuen eta haurren presentziaren arteko oreka dokumentatu baitzen (Unzu & Peréx, 1997-1998, 133. or., 2010, 112. or.).

Horren ostean hasiko ziren Aranzadi Zientzia Elkartean Artzibarren barna jarraitzen duen galtzadaren ikerketa lerroa jorratzen eta ildo horren barnean gauzatu ziren Zalduako lehen zundaketa arkeologikoak 2012 urtean (Martinez & Zubiria, 2017). Aztarnategi horiek sakonago ezagutu ahal izateko, 2013tik aurrera miaketa geofisikoak egin ziren, eta, gutxienez 4,5 hektareako hiri-egitura oso bat erakutsi zuten bertako emaitzek (Garcia-Garcia et al., 2016). Hurrengo urteetan gauzaturako miaketa geofisiko osagarriek, zundaketa geoarkeologikoek eta indusketa arkeologikoek kokagune erromatarrari buruzko ezagutza zabaldu dute gaur egun arte. Esate baterako, herrigunea galtzadaren bi aldeetan egituratuta

zegoela edo tamaina eta funtzio anitzeko eraikinez osatuta zegoela (Garcia-Garcia, 2017; Garcia-Garcia et al., 2017).

2. ZALDUAKO 2022KO KANPAINA

Urte honetako indusketa kanpaina aztarnategiko bi gune ezberdinetan zentratu da, lehen 2017ko urtetik aurrera industen ari den herrigune erdialdeko termetako eraikinean, eta bigarrena, aztarnategiko hego mendebaldeko gunean. Horietako eskuhartze bakoitzak helburu eta kasuistika desberdinak zituzenez, kasu bakoitzean jarraitutako estrategia ezaugarri horietara egokitua izan da. Termen eraikinean eremu zabaleko indusketak egiten ari dira 2017. urteaz geroztik gaur egun arte (Mendizabal et al., 2021, 164-167. or.), beste zonaldean, ordea, amaitu orduko estali diren zundaketa arkeologikoak egin izan dira 2012 eta 2015-ko kanpainetan.

2.1. Termen eraikineko eskuhartzea

Hasteko, termen eraikinaren kasuan, aurrez 2020an industen hasi eta haren perimetroa mugatutako gela batean berokuntza sistema zegoen ala ez egiaztatzea izan da, horretarako gune honetako stratigrafia sakontzeko estrategia jarraituz. Orain arte indusitako eraikinaren hego mendebaldean kokatuta dago, eta oinplanoa laukizuzena du 8 m x 5,36 m-ko neurriekin. Gelaren erdialdean, mendebaldeko ertzean, badirudi ia 1 m-ko irtenune bat izan zuela momenturen batean, ondorengo faseren batean egokitua izan zena. Bertan aurretik egindako indusketek, ziurrenik fase berantiar bati zegokion zoru edo prestaketa maila bat azaleratu zuten, [1104] izendatua, eta hortik abiatu da 2022ko kanpaina (Mendizabal et al., 2021, 256-258. or.; Mendizabal, 2022, 166-167. or.). Haren azpian ikatz eta kedar ugari betekin mailak erregistratu dira, batez ere [1206], gelaren berokuntza sistema osatuko zuten hainbat elementu zatirekin batera

(2. irudia, ezkerreko argazkia). Horien artean ugarienak *clavi coctile* deituriko euskarri moduak izan dira, iltze batez eutsiak, lurpeko *hipocaustum* sistema paretan barnea zabaltzeko hutsunea sostengatuko zutenak. Haiekin batera *pilae* edo adreiluzko zutabetxoak osatuko zituzten adreilu biribil eta karratuak ere dokumentatu dira.

Behin maila horiek jaitsita, gelaren ipar ekialdean 2 m x 1,5 m-ko zundaketa bat egitea erabaki zen, *hipocaustum* egituraren azpian fase goiztiarragoren bat zegoen ziurtatzeko eta ekialdeko hormaren zimentazio maila noraino iristen zen egiaztatzeko helburuz. Bertan, batez ere harriz osaturiko [1214] betekinaren azpian, sedimentu oso buztintsuz eta material arkeologiko ugariz osatutako maila bat erregistratu zen, hau da, [1221]a. Amaitzeko, estratu horren azpian eta paretaren zimentazio mailaren azpitik, geruza buztintsu ilunago bat topatu zen, [1223], eta indusketa bertan eten behar izan zen, maila freatikoak eta kanpainaren amaierak behartuta.

Bestalde, gelaren ipar mendebaldeko ertzeko hainbat paretan elkarguneko eremuan ere sakondu da, egituren sekuentziazio eta funtzionalitatea argitzeko helburuaz. Aurreko urteetako indusketei jarraipena emanez, errekontza zan-

tzua zituen 4 m x 2 m-ko gelaxka bat mugatu da eta haren barnean errekontza zantzu nabarmenak zituzten hainbat betekin identifikatu dira hala nola [1211], [1212] edota [1216] (2. irudia, eskuineko argazkia). Kontuan hartuta gune hau eraikinean *hipocaustum*-ez hornitutako bi gelen tartean kokatuta dagoela (Mendizabal, 2022, 165-166. or.) haiek berotzen zituen *prae-furnium* edo labearen kokaleku gisa identifikatua izan da.

2.2. Aztarnategiaren hego mendebaldeko zundaketak

Guztira bi izan dira aztarnategiko inguru honetan egindako eskuhartzeak. Bata geofisikak E31 izendatutako oinplano angeluzuzeneko eta antzeko tamaina zazpi konpartimentutan banatutako eraikuntza-multzoko, gelaxka batean burutu da; bestea, aldiz, antzeko tamaina duten hiru moduluk osatzen duten E17ko eraikuntza-multzoko E17a moduluko estantzia batean (Garcia-Garcia, 2017, 101-103. or.). Kasu hauetan jarraitutako estrategia zundaketa arkeologikoa izan da, helburua gune honen kronologia eta funtzionalitatea zehatzea baitziren helburu nagusiak. Izan ere, 2012ko kanpainan 17a multzoaren barnean egindako zundaketa ez baitzen maila geologikoetaraino iritsi (Agirre Mauleon, 2012, 29-37. or.).



2. Irudia. Termetako eraikinaren indusketako argazkiak: ezkerrean *hipocaustum*-aren aztarnak topatu diren gelakoak eta eskuinean *prae-furnium*-aren balizko kokalekua. Egilea: L. Arana.

Hori horrela, lehenengoaren kasuan 4 m x 2,5 m-ko gunea bat azaleratu zen, lurrez lotutako eta gutxi landutako harriz ertainez eraikitako [102], [107] eta [108] paretez mugatuta. Barnean, lau estratuz osatutako sekuentzia bat dokumentatu zen, ez oso sakona eta ezin izan ziren bereizi garbi zeintzuk izan zitezkeen prestaketa edo eraispen maila (3. irudia, ezkerreko argazkia). Gainera, erregistratutako material bakanek zaildu egin zuen hasiera batetik planteatutako hipotesien berrespen zein ezeztapena.

Beste zundaketa arkeologikoan 5,5 m x 4 m-ko eremu bat zabaldu zen, 2012an egindakoarekiko metro batzuk hegoalderago, eraikinaren mendebaldean. Hemen ere, gainazaleko geruzak indusi ostean azaleratu zen gelaren perimetroa markatzen zuen [207] paretara 3,6 x 2 m-ko barne espazioa osatuz (3. irudia, eskuineko argazkia). Barnean, uharriz osatutako [203] maila erregistratu zen eta azpian lohi buztintsuz osatutako prestaketa [204] maila, paretako oinarrien azpitik jarraipena zuena.

3. ONDORIOAK

Hortaz, 2022ko kanpainako indusketak eta aurretik egindako bestelako eskuhartzeak kontuan hartuta honako ondorio hauek atera ditu gure lantaldeak.



3. Irudia. Hego mendebaldeko zonaldean egindako zundaketa arkeologikoaren argazkiak: ezkerrean, E31 eraikin multzoan egindako zundaketaren amaierako argazkia eta eskuinean E17a-ko indusketa prozesuan. Egilea: O. Mendizabal.

Termen eraikinari dagokionean, kanpaina honek berretsi egin du indusitako gelan termaren funtzionamenduaren faseren batetan berokuntza sistemaz horniturik izan zela. Gainera, berotasuna paretan barnetik zabaltzeko K. o. I. mendearen erditik aurrera hedatuko zen *concameratione* sistema baliatuko zen, *clavi coctile*-z sostengatuta (Beaufay & Pavía Page 2020, 244-245. or.). Hala ere, hori ez zen eraikinean dokumentatutako fase bakarra izango, gutxienez aurretiko beste bat dokumentatzeko aukera izan baita, gelaren ipar ekialdean egindako zundaketak erakutsi duen moduan. Horri, 2020an ikeritutako zoru/prestaketa gehitu beharko litzaioke guztira gutxienez hiru une garrantzitsuren aztarnak erregistratuz. Horri, gelaren ipar mendebaldeko ertzean kokatutako *prae-furnium* edo labearen zantzuak gehitu beharko zaizkio, berotutako bi gelekin komunikatuta egon litekeena.

Herrigunearen hego mendebaldeko eremuan egindako zundaketek ez dituzte datu gehiegi eskaini, ez baitira nahiko aurkikuntza egin eremu honen izaera zehazteko. Horrek irekita uzten du zonalde horretan herrigunearen balizko *forum*-a kokapenarekin gaineko hipotesiak (García-García, 2017, 103. or.), baita foro batek izan beharreko materialitatea, eredia eta definizioaren inguruko eztabaida ere. Dena den, ukatu ezin dena geofisikak eskaintutako egituren berrespen arkeologikoa eta bertako stratigrafiaren sekuentzia zioa izan da.

4. BIBLIOGRAFIA

Agirre Mauleon J., Martínez Txoperena J. M., Puldain J. (2012). *Proyecto de prospección arqueológica en los términos municipales de Luzaide-Valcarlos, Orreaga-Roncesvalles, Auritz-Burguete, Erroibar-Valle de Erro y Artzi-bar-Valle de Arce*, 2012. Indusketa amaierako txostena.

Beaufay, K. & Pavía Page, M. (2020). Material latericio en las termas públicas: comparativa entre Hispania citerior e Italia central. In J. M. Noguera Celdrán, V. García-Entero & M. Pavía Page (coords.). *Termas públicas de Hispania* (235-249. or.). Universidad de Murcia & Universidad de Sevilla.

García-García, E. (2017). *Geofísica tekniken karakterizazioa Euskal Herriko Antzinaroko aztarnategi arkeologikoetan* (doktore tesia). UPV/EHU.

García-García E., Martínez Txoperena J. M., Sala R., Aranburu A., Agirre Mauleon J. (2016). Magnetometer Survey at the Newly-discovered Roman City of Auritz/Burguete (Navarre). Results and Preliminary Archaeological Interpretation. *Archaeological Prospection*, 23(4), 243-256. <https://doi.org/10.1002/arp.1537>

García-García, E., James Andrews, D., Iriarte, E., Sala, R., Aranburu, A., Hill, J. & Agirre Mauleon, J. (2017). Geoaerchaeological Core Prospection as a Tool to Validate Archaeological Interpretation Based on Geophysical Data at the Roman Settlement of Auritz/Burguete and Aurizberri/Espinal

(Navarre). *Geosciences*, 7(4), 104. <https://doi.org/10.3390/geosciences7040104>

Martinez Txoperena, J. M. & Zubiria Mujika, R. (2017). La vía de Hispania a Aquitania en el Paso del Pirineo por Ibañeta. Resultado de la investigación sobre la calzada romana desde Campo Real-Fillera a Donazaharre/Saint-Jean-Le-Vieux. In *Jornadas sobre las calzadas romanas en la Antigüedad*, 2013, *Auritz/Burguete* (151-204. or.). Aranzadi Zientzia Elkarte.

Mendizabal Sandonís, O., García-García, E., Martínez Txoperena, J. M., Zubiria, R. & Agirre Mauleon, J. (2021). Zalduako aztarnategi arkeologikoa: 2020ko indusketa kanpaina [Yacimiento arqueológico de Zaldua: campaña de excavación de 2020]. *Trabajos de Arqueología Navarra*, 31-32, 253-260. <https://doi.org/10.35462/TAN31-32.13>

Mendizabal Sandonís, O., García-García, E., Martínez Txoperena, J. M., Zubiria Mujika, R. & Agirre Mauleon, J. (2022). Yacimiento arqueológico de Zaldua: campaña de excavación de 2021. *Trabajos de Arqueología Navarra*, 33, 161-169. <https://doi.org/10.35462/TAN33.10>

Peréx Agorreta M. J. & Unzu Urmeneta M. (1997-1998). Necrópolis y poblado de época romana en Espinal (Navarra). *Trabajos de Arqueología Navarra*, 13, 75-156.

Unzu Urmeneta M. & Peréx Agorreta M. J. (2010). Segunda necrópolis de incineración de época romana en Espinal (Navarra). *Trabajos de Arqueología Navarra*, 22, 93-114.